

KONTSUMOAN ERAGITEKO OINARRIZKO ARAUAK

Eskolak konpromisoa hartu du ingurumenean sortzen duen inpaktua kudeatzeko. Hala, langileontzat zein ikasleentzat eredugarria den praktika bat jarri dugun martxan, kontuan hartuta gure jarduerak zer-nolako inpaktua duen ingurunean eta zer egin dezakegun egoera hobetzeko. Atal honetako oinarrizko alderdietako bat da pertsonak sentsibilizatzea, garapen jasagarri eta ekitatiboaren eragile aktibo bihurtzeko.

Horretarako, Eskolaren eguneroko jardunean kontsumitzen diren materialen ezaugarrien arabera, oinarrizko arau batzuk ezarri eta betetzen ditugu. **Urrezko 3 arauak deritze (murriztu, berrerabili eta birziklatu)** eta kontzientziazioarekin eta hezkuntzarekin lotutako ekintzak dira. Gure kudeaketa-ereduari **laugarren arau bat gehitu nahi diogu: erantzukizuna**, gure balioetako bat ere badelako.

PAPERA

Murriztu

- Inprimatu orriaren bi aldeetatik.
- Ez erabili alferrik posta arrunta edota paperezko argitalpenak.
- Paperezko publizitateren edo argitalpenen bat interesatzen ez bazaizu, eskatu bertarako harpidetza kentzeko.
- Ez ekoiztu material editatu eta publizitate gehiegi; horretarako, berrikusi banaketa-zerrendak eta eguneratu datu-baseak aldizka.
- Erabili komunikatzeko bitarteko elektronikoak, ahal den neurrian.
- Saiatu mezu elektronikorik ez inprimatzen, behar-beharrezkoa ez bada.
- Partekatu liburuak, erabili liburutegiak eta hartu liburuak maileguan.
- Erabili Eskolaren liburu digitalak.

Berrerabili

- Erabili alde bakarretik inprimatutako papera zirriborroetarako.
- Berrerabili bulegoko materiala.
- Berrerabili gutun-azalak, ahal den guztietan.

Birziklatu

- Bota birziklatzeko papera horretarako jarritako edukiontzietan.
- Erabili % 100ean birziklatutako papera, batere klororik gabe zuritua.

PLASTIKOAK

Plastikoaren kontsumoa gehiago murriztu ezin bada, berrerabili produktu horiek ahal den neurrian; azkenik, bota itzazu dagokion edukiontzira.

ARGIZTAPENA

- Itzali argiak, beharrezkoa ez bada haiek piztuta edukitzea.
- Piztu langileon kontzientzia.
- Erabili kontsumo efizienteko lanparak.
- Erabili argi naturala, ahal den neurrian.

Eskolan, kartel espezifikoak daude argi-puntu batzuetan: **"Energia aurrezte zure esku dago, ITZALI ARGIA"**.

BEROGAILUA/KLIMATIZAZIOA

- Isolatu termikoki instalazioak (leihoak, ateak...).
- Itxi ateak eta leihoak berogailua piztuta dagoenean.
- Egiaztatu egunero tenperatura egokia dela, eta, beharrezkoa bada, jaitsi termostatoa.
- Egokitu berogailua pizteko ordua Eskolaren jardueraren arabera.

EKIPO ELEKTRIKOAK

- Aktibatu monitorea deskonektatzeko aukera.
- Itzali monitorea inor ez bada haiek erabiltzen ari.
- Lanetik irten aurretik, ziurtatu unitate zentrala eta pantaila itzalita daudela.
- Birziklatu erabiltzen ez diren ekipo informatikoak.
- Inprimagailuan abisu bat agertzen bada toner-kartutxoaren maila baxua dela adierazteko, astindu kartutxoa (beste 100 kopia ere egin ahalko dira).
- Fotokopiagailuaren egonean modua.
- Itzali fotokopiagailua inor ez bada hura erabiltzen ari.

URA

- Ziurtatu txorrotak ondo itxita daudela.
- Ura galtzen duen txorrotik badago, konpondu ezazu eta eman horren berri.

IBILGAILUAK/GARRAIOA

- Sustatu garraiobide eraginkorren erabilera:
 - Bizikletak.
 - Partekatu ibilgailua ahal den guztietan.
 - Erabili Osakidetza langileon eskura jartzen duen garraioa.
 - Erabili garraio kolektiboa.

MATERIAL SANITARIOA

Arabako ESIko Txagorritxu egoitzarekin kudeatzen da tailer praktikoak egiteko erabiltzen den material sanitarioa (material sanitarioa eta/edo tresneria eta/edo instalazioak eskatzeko instrukzioaren bidez araututa dago, "6.2, Azpiegitura eta baliabide materialen kudeaketa" prozeduran), eta material horiek arduraz erabiltzen dira.

- Iraungitako materialaren erabilera.
- Tresneriaren lagapena.